



Astigarragako Udala

Astigarragako udalak azaroaren 10ean izango den Memoriaren Eguna ospatuko du

Iaz bezala, udaletxea ospakizunera atxikituko da eta biktima guztiei egiten zaien omenaldi gisa aurten ere Astigarragako bandera haga-erdian egongo da egun guztian

Legealdi honetan ohi den bezala, Astigarraga Memoriaren Egunera atxikitu da Jaurlaritzaren gonbidapena medio eta aurten ere gobernu honek azaroaren 10 biktima guztien oroimenerako eguna izatea nahi du. Eguerdiko 12:00etan 15 minutuko konzentrazioa egingo da Foru plazako arkupetan eta biktimen familiei lore eskaintza egingo zaie.

Horrez gain, aurten ere Astigarragako bandera haga-erdian egongo da egun guztian. Omenaldia udal gobernu honek oroitzapenerako proiektuak eta memoriaren inguruan egitasmoak martxan jartzeko duen konpromisoarekin bat dator.

Gogora dezagun 2015ko irailaren 4ean Iñigo Urkullu lehendakariak eta Jonan Fernandez bakegintzarako eta bizikidetzarako idazkariak *Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herri herri (1960-2015)*** banatu zituztela, udalerriei oroimen proiektuak egiteko baliabideak emateko asmoz.

Txostenean adierazten den bezala Astigarragak lau biktimen erretratua jaso du: 1978 poliziak su-armaz hildako Joseba Barandiaran Urkola, 1979an GAE eta BVEek tirokatu zuen Tomas Alba Irazusta, 1984ean GALEk tiroz hildako Bixente Perurena Telletxea eta 1985ean GALEk su-armaz hildako Agustin irazustabarrena Urruzola.

Gogora-ren adierazpena

Aurreko astean izandako ohiko udal osoko bilkuran aipatu zen bezala, udal taldea eta PSE-EE atxikitu dira Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak proposatutako adierazpenera. Testuak biktimekiko elkartasuna eta pertsona guztien giza duintasunaren, bizitzeko eskubidearen eta giza eskubideen balio gorenarekiko konpromisoa jasotzen du.

El Ayuntamiento de Astigarraga celebrará el Día de la Memoria este 10 de noviembre

Como el pasado año, el consistorio se une a la celebración y la bandera ondeará a media asta en recuerdo y homenaje a las víctimas de la localidad

El gobierno municipal de Astigarraga desea que el día 10 de noviembre de este año, del mismo modo que se ha hecho a lo largo de esta legislatura, por medio de la invitación del Gobierno Vasco, se recuerde a las víctimas de la localidad. Para ello, se realizará una concentración en los arcos de Foru Plaza a las 12:00 del mediodía y se hará una ofrenda floral a las familias de las víctimas.

Además, la bandera de la localidad ondeará a media asta durante todo el día 10. Este homenaje refleja el compromiso del equipo de gobierno con llevar a cabo actos relacionados con el recuerdo y la memoria.

El pasado 4 de septiembre de 2015 el lehendakari Iñigo Urkullu y el secretario de paz y convivencia Jonan Fernandez entregaron al municipio de Astigarraga los '*Retratos Municipales de la vulneración del derecho a la vida en el caso vasco (1960-2010)*', con el fin de poner en marcha actos sobre la memoria.

En el caso de Astigarraga, el correspondiente retrato municipal recoge cuatro fallecidos durante el conflicto armado. En 1978 Joseba Barandiaran Urkola murió a manos de la policía. Un año después, los Grupos Armados Españoles (GAE) y el Batallón Vasco Español (BVE) tirotearon a Tomas Alba Irazusta. Del mismo modo fallecieron Bixente Perurena Telletxea y Agustín Irazustabarrena Urruzola, pero asesinados por los Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL), en 1984 y 1985 respectivamente.

Manifiesto de Gogora

Tal y como se expuso en el pleno ordinario celebrado la pasada semana, el equipo de gobierno y el PSE-EE se adhieren al manifiesto de Gogora, el Instituto de la Memoria, Convivencia y Derechos Humanos. El texto expresa la solidaridad con las víctimas y el compromiso con el derecho a la vida y los derechos humanos de todas las personas.